

## **BERMEOTARRAK INGALATERRAN**

### *Anton Erkorekak Bermeon bildutako ipuin zaharra*

Bermeotar batzuk sartu ziren arribadan Ingalaterra, eta han hiruzpalau gauza eta eskifai bat behar zuten erostera joan ziren. Gibeleta erostera denda batera joan ziren, eta hasi ziren erdaraz hitz egiten.

- Tienes birbiki?

Eta dendako gizonak ez zien ulertzen. Eta besteak aurrera:

- Una cosa para aser abujeros.

Baina besteak ez ziotenez ahitzen esan zien:

- Zelako jendea da hau, bada!, ez dakite zer den ginbeleta ere!

- Oh, gimbelt!

Eta ginbeleta atera zien.

**Anton Erkoreka**

Etnografía de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniense Bilduma

Bilbao, 2000